

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

AEBetako marineak Libian... duela bi mende

TRIPOLI (LIBIA), 1804. AEBetako gerra ontzidiak hiriko portu parean bota zituen aingurak. Hiria babes-ten zuten gotorlekuak leherrarazten saiatu ziren, baina alferrik. Hurrengo urteko neguan, Tripoliko paxaren aurkako matxino libiarren laguntzaz, lurrera-tzea eta Derna hiria hartzea lortu zuten. Baina AEBetako marineen eraginkortasun urriaren eraginez, eta Europako potentzien laguntzarik gabe –ingelesak, esaterako, etsai zituzten orduan–, ez zuten paxa kar-gutik kentzeko misioa betetzerik lortu, eta estatuba-tuarrek Afrika iparraldetik alde egin behar izan zuten. Bi hamarkada besterik ez ziren Pariseko Itunean (1783) AEBetako independentzia nazioartean onartu zela eta, hala, porrot hura herrialde jaioberriko mari-neek beren mugetatik kanpo burututako lehen gerra ekintza izan zen. Ez zen azkena izango, jakina.

Duela 200 urteko ekintza militar horren atzean oraindik ez zegoen petroliorik, bai, ordea, interes eko-nomikoak. 1801 eta 1805 urteen artean Mediterrane-oko uretan Nelsonen ontzidi ingelesaren eta Napo-leonen itsas armadaren arteko gatazkak izan ziren, baina bazen arazo zaharrago bat: Afrika iparraldeko agintarien babesaz jarduten zuten piratak. AEB jai-oberrian berehala Mediterraneoan merkataritzan ari-tzeko interesa piztu zen. Horretarako kostaldeko esta-tu horiekin hainbat akordio sinatu zituzten, piraten oztopoa gainditzeko. 1787an Marokoko sultanarekin adostu zuten hitzarmena, 1795ean Aljerreko beia-rekin eta, 1797an, Tripoliko paxarekin. Baina estatuba-tuarren arrakasta ikusita, berehala diru gehiago eska-tzen hasi ziren eta, Monroe presidenteak ezetza eman zienean, Tripoliko paxa eta beste agintari batzuk



MYLES ROSE



Goian, marineak gaur egun, Mediterraneo itsasoan. Azpian, Edward Morgan margolariaren mihiseak USS Philadelphia fragataren erasoa irudikatzen du, 1804ko otsailaren 16an, Tripoliko portuan. Huraxe izan zen AEBetako marineek nazioartean egin zuten lehen erasoa.

AEBetako itsasontziei erasotzen hasi ziren. Orduan erabaki zuten Tripoliri erasotzea.

200 urte geroago AEBetako ontziak Libiako kostalde parean daude berriro eta hiriburua marineen him-noan aipatzen da: “Moctezumaren harresietatik Tripo-liko itsasertzera /gure herriaren gatazketan borrokatzen dugu, lurrez, itsasoz eta airez”.

Arrastoak

Euskal Herriko azken tximinoa aurkitu dute

DESAGERTU ETA 100.000 URTERA, arkeologok azken euskal tximinoaren arrastoak aurkitu dituzte Arrasateko Lezetxikin (argazkian, kobazulo horren indusketa lanak). EHUKo iras-kasle eta Aranzadiko kide Alvaro Arrizabalagak zuzendutako induske-

ten emaitzak *Journal of Human Evolu-tion* aldizkarian argitaratu dituzte. “Gibraltargo tximinoa” delakoa Pleis-tozenoan bizi izan zen gurean, eta aurkikuntza honek adierazten du aro horretan bertako klima pentsatu baino epelagoa zela.



ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA